

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak kontabilitate erregistroak bidaltzeko tokiko entitateek erabilitako tresnara sartzeko aukera eman dio Kontuen Ganberari

*Horrela islatzen da gaur goizean Elizalde kontseilariak era gainbegiratze-organoko presidentek sinatu duten hitzarmenean*

Ostirala, 2018.eko abenduak 28

Nafarroako Gobernuak IDECAL izena duen plataformara sartzeko aukera eman dio Nafarroako Kontuen Ganberari. Tresna honen bidez tokiko erakundeek kontabilitate fitxategiak (aurrekontua, aurrekontu hedatua, likidazioa eta kontuak) Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari aurkezten dituzte.

Horrela islatzen da gaur goizean Landa Garapeneko, Toki Administrazioko eta Ingurumeneko kontseilaria den, Isabel Elizaldeak eta gainbegiratze-organoko presidentek, Asun Olaechea, sinatu duten lankidetz hitzarmenaren.

Hitzarmen honen xedea Kontuen Ganberak tokiko erakundeek bidalitako kontu orokorren fitxategi osoak kontsultatu ahal izatea da, horrela bere helburuak diren kontuen ikuskatzea eta Nafarroako tokiko erakundeen kudeaketa ekonomikoa laguntzea errazteko. Hitzarmenak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetuko du, baliabide publikoen erabilera bateratua eta partekatua erraztuz

Horrez gain, hitzarmenak Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak Kontuen Ganbera lau urteko epeaz sarbidea erraztuko duela ezartzen du, eta Kontuen Ganberak datu horiek bakarrik erabiliko dituela Tokiko erakundeen kudeaketa ekonomikoaren kontrolatzeko bere eskuduntza legalak betetzeko.

IDECAL (Tokiko Administrazioaren Kontabilitate Erregistroen Datuen Trukea) Nafarroan 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa, betzeko indarreko plataforma da, eta tokiko erakunde bakoitzeko kontabilitate-aplikazioek sortutako fitxategiak biltzen ditu.



Ezkerretik eskuinera: José Luis Ezquerro, Kontuen Ganberako abokatuak; Olaechea presidentea, Elizalde kontseilaria eta Xabi Lasa, Toki Administrazioko zuzendari nagusia.